

FUNTZEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtziona dezan behar ditugun elementu garrantzitsuenak hurrengo hauek dira; produktuak bezeroari banatzeko erabiliko ditugun Dronak, gure enpresa hobetu eta eboluzionatu dezan beharrezkoa den kapitala, eta dronak gidatu ahal izateko baimenak. Ondorioz, gure enpresak 4 funtsezko baliabide beharko ditu.

Lehendabizikoa, baliabide fisikoak dira. Alde batetik, ordenagailuak. Hauek egoera ezberdinetarako behar ditugu; esate baterako, gure langileak dronak gidatu ahal izateko, gure aplikazioak funtziona dezan, eta bezeroak beraien eskaerak egin ahal izateko. Bestetik, diseinuak egiteko materiala, aplikaziorako. Eta azkenik, lanerako eremua, ordenagailuak jarri ahal izateko langileak bere lana egiteko.

Bigarrenik eta hirugarrenik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak. Hauei dagokienez, langileen ezagutza dronakiko eta beraien abileziak hauek gidatzeko. Eta gaienera, aplikazioa egiteko diseinuaren ezagutza duen langilea ere beharko dugu. Gure langileak esperientzia izango dute dronekin.

Eta azkenik, gure finantza-baliabideak. Hauek gure aurrezkitik aterako ditugu, gure proiektuak eboluzionatu izan ahala, gure aurrezkiak berreskuratuko ditugu eta gure enpresan kapitala sartu ahalko dugu, hobetu dezan.